du eta ikusgarri egiteko. Bestetik, egunero izugarriko ordu kopurua etxeetan zaintza lanak burutzen eskaintzen duten pertsonak, gehienak emakumeak, guztiz edo partzialki askatzea, horrela genero desberdintasunen murrizketan aurrera eginez. Azken batean, lanerako denboraren banaketaz ere hitz egiten ari gara.

Bestetik, erabilgarriak izango zaizkigun, hobeto bitztea ahalbidetuko diguten, zoriontsuagoa egingo gaituz-

ten jardueretan lanpostuak sortzea da helburua. Baliabide naturalak, adibidez telefono bat, ekoizteko eraldatzeak erabilgarritasuna ematen digu, eta hobeto bizitzea ahalbidetzen digu; baina norbaitek poesia errezitatzeak, edo gaixorik dagoen edo menpekotasunen bat duen senideren bat zaintzeak ere. Espazio publikoa zaintzeak ere bai, inguru garbi eta eroso batean hobeto bizi baikara; eta baita ingurugiroaz arduratzeak ere, bai gure bizitza, bai gure ondorengoena haren menpekoak dira eta. Gaur egun, norbait gure zaharrez, menpekotasunak dituzten helduez, gure seme-alabez eta gaixoez arduratzea behar dugu; laguntza psikologikorako zerbitzuak areagotzea; fauna eta flora zaintzea; basoak eta beste espazio berde batzuk zaindu eta berritzea; hondakinak garbitzea; energetikoki eraginkorrak izan daitezen eraikinak birgaitzea; konponketa, berrerabilpen eta birziklapen zerbitzuak garatzea; ibaien ibilguak egokitzea; ereite eta ureztatze proiektu ekologikoak abiatzea; aisialdi, kirol eta kultura zerbitzuak ugaritzea; gure herrietako auzo askotako azpiegiturak zaintzea; hezkuntza eta osasungintza zerbitzuak hobetu eta areagotzea; talde diskriminatuak eta zaugarrienak babestea; energia berriztagarriak ekoizteko zentroak eraiki eta mantentzea; mugikortasun txikia duten pertsonen sarrera errazteko etxebizitzan birgaitzea; gure hiri-espazioak ongizate komunera, eta ez enpresen irabazietara norabidetzea; ezigaitasunak dituzten pertsonen autonomia irabaz dezaten laguntzea; etab...

Jarduera guzti horiek egun ez dira aurrera eramaten logika kapitalista pribatu batetik errentagarriak ez direlako edo eremu publiko edo kapitalista ez-pribatutik horrela izan dadin erabaki ez delako. Bermatutako Enpleguarekin lortu nahi dena gure jendarteko baliabide eta bitartekoak antolatzea da, lan egin nahi duen eta ahal duen jendeak ongizatearentzako hain garrantzitsuak diren jarduera horiek gara ditzan, logika kapitalista gaudituz, noski. Azken



Eduardo Garzón

instantzian, BE batekin bilatzen dena Espainiako Konstituzioko 35.1 artikuluan jasotako lanerako eskubidearen betearazpena da; hau da, gida-oinarri hori bermeak dituen estatus bereziko oinarriko eskubide bihurtzea: herritarren lanerako eskubidearen aurrean, berau bermatzeko sektore publikoaren obligazioa.

Nahiz eta Estatuak izango litzatekeen dagokion soldaten ordainketa zuzenean finantzatzeko lukeen lurralde-instituzioa, BE-n aurrera ze jarduera aterako beharko liritekeen erabakitzeko eskumena jendarte zibilak edukiko luke udal-esparruan, parte-hartze mekanis-

mo garden eta demokratikoen bidez. Bestela esanda, edozein herritar, elkarre, kolektibo edo irabazi asmorik gabeko antolakundek bere herrian garatu beharko liritekeen lan berrien inguruan iritzia eman eta erabakitzeko eskubidea izateko kanalak irekiko liriteke. Horrela, euren komunitateetako arazoak hobe biekien ezagutzen dituzten horiek, hain zuzen, izango liriteke beharrezkotzat jotzen dituzten lanpostuak diseinatuko dituztenak. Ezaugarri hau funtsezkoa da langile berriek burututako lanek herrien eta euren inguruen onura ekonomiko, sozial, ekologiko eta kulturean ahalik eta eragin handiena izateko. Dena den, Estatuak lege muga batzuk zehaztu

beharko lituzke ezinbestekoa den jarduerarik ahazten ez dela bermatzeko, esaterako herri bakoitzeko BE-ren %30 gutxienez haur eta adinduen zaintzara bideratzea baldintza bezala ezarriz. Oreka bat lortu behar da auzokideen jarduera berriak erabakitzeko aukera-askatasunaren eta jarduera batzuk aurrera eramateko premiazko beharrizan sozial eta ekologikoaren artean.

Sektore publikoak eskatzen duen orori baldintza duinetan lanpostu bat bermatzean, aldi berean sektore pribatua langile askok pairatzen dituzten baldintza eskasak borrokatzen dira, edozein enpresetako edozein langilek lan baldintzak hobetzea exijitu dezakeelako BE-ko langileen lan poltsara pasatzeko mehatxuarekin. Hau da, BE-k nabarmenki hobetzen du lan merkatuko behe-muturrean kokatutako langileen negoziazio boterea. Hala ere, eta arrazoi honengatik hain zuzen, BE-n barnebidetutako soldadak ez lirateke oso altuak izango, gutxienez bere lehen etapan, lan merkatua gehiegi ez aztoratzeko asmoarekin. Lan baldintzarik txarrenak dituzten langileen baldintzak hobetzea bilatzen da, ez enplegu pribatua enplegu publikoarekin ordezkatzeko.

Bermatutako Enpleguak abantaila gehiago dauka. Horietariko bat langabetutako pertsonen diru-sarrera bat eta bizitza publikoan parte hartzeko aukera ematen zaien aldi berean, beharrizan ekonomiko, sozial, ekologiko eta kultural andana asetzen direla da. Pobreziaren murrizketa desberdintasun sozialen behar kadaren eskutik joango litzateke, eta horrek klima soziala hobetu eta langabeziatik eratorritako arazoak (gaitasun psikologikoak, delinkuentzia, drogak, etab.) gutxitzea ekarriko luke. Gainera, BE-ak kotizazio sozialak areagotzea ahalbidetzen du, eta horrela pensioen sistema publikoaren sostengarritasunari buruzko -oinarririk gabeko beldurrak uxatu, baita BPG-ren areagotzea ere. Eragin ekonomiko eta sozial

“Azken batean, lanerako denboraren banaketaz ere hitz egiten ari gara”

“BE-rekin lortu nahi dena gure jendarteko baliabide eta bitartekoak antolatzea da, lan egin nahi duen eta ahal duen jendeak ongizatearentzako hain garrantzitsuak diren jarduera horiek gara ditzan, logika kapitalista gaindituz, noski”

“Euren komunitateetako arazoak hobekien ezagutzen dituzten horiek izango lirateke beharrezkotzat jotzen dituzten lanpostuak diseinatuko dituztenak”

“Baldintza eskasak borrokatzen dira, edozein enpresetako edozein langilek lan baldintzak hobetzea exijitu dezakeelako BE-ko langileen lan poltsara pasatzeko mehatxuarekin”

globala inpaktu indibidualen batura baino handiagoa da, kohesio eta bake sozial handiagoko testuinguruetan sortzen diren sinergia eta bertute-zirkuluak direla eta. Are gehiago, estimazio batzuen arabera, edozein Bermatutako Enplegu programak langabeziaren ondorio diren arazoei langabezia-prestazioa, erreturto gabeko familientzako laguntzak, arreta psikologikoa, kartzela-zerbitzuak, etab. bezalako diru-laguntzekin aurre egiteak baino kostu txikiagoa dauka.

Azkenik, ezkutuko ekonomiaren zati handi bat azaleratzen laguntzen du. Baita une honetan langabezia daudenen prestakuntza lagundu ere, BE-n gaitasun eta ezagutza eskuratzen joango liratekeelako, existitzen ez diren enpleguen bila denbora galdu beharrean. BE-ko parte-hartzaileraren batek lanposturen bat garatzeko prestakuntza zehatz bat behar badu, erraztuko zaio; orain arteko prestakuntza plan tradizionalekin alderatuta desberdintasuna da kasu honetan existitzen den enplegu baterako prestakuntza dela pertsona, langabetu bat gero existitzen ez den enplegu baten bila ahitu dadin prestatu beharrean.

Garrantzitsua da azpimarratzea proposatutako jarduerak batez ere baliabide naturaletan eta zaborren sorreran intentsiboak ez diren zerbitzu pertsonal eta ekologikoetan oinarritzen direla, eta beraz, euren ingurumen-eragina oso murrizta dela. Horri gehitu behar zaio enpleguen banaketan bizilekuaren eta enpleguaren arteko gertutasunari lehentasuna eman behar zaiola, mugikortasunaren ondoriozko energia-kontsumoa ahalik eta gehien gutxitu dadin

Azken batean, Bermatutako Enpleguarekin ekonomia mistoen espazio ez-kapitalista baliatu nahi da enplegu osoa lortzeko, errentagarritasun ekonomikoaren mugak saihestuz, eta horrela, errentagarritasun sozial eta ekologikoa gailenduz. Dakigun bezala, borondate politiko kontua besterik ez da. ■



Txomin Lorca Alcalá
LABeko batzorde
sozioekonomikoko kide ohia

LAB sineskatua CC BY SA

A cuentas con la Reducción del Tiempo de Trabajo

¿De qué hablamos cuando debatimos sobre la reducción del tiempo de trabajo? ¿Reducción del tiempo de trabajo para qué?

Cuando hablamos de la reducción del tiempo de trabajo (RTT), estamos hablando de una reivindicación central en el movimiento sindical internacional. El tiempo de trabajo es el mecanismo que genera la plusvalía que, en el sistema capitalista, se apropia el empresario; es la oportunidad para que trabajadoras y trabajadores puedan participar en el ámbito político y social; y es, por supuesto, la clave para que puedan acceder a unas condiciones de vida dignas.

TXOMIN LORCA ALCALA ha sido militante de LAB y miembro de la Comisión Socioeconómica durante años. Esta experiencia militante le ha permitido vivir en primera persona el contexto de la Huelga General de 1999 y la creación de la Carta de los Derechos Sociales de Euskal Herria.

La reducción del tiempo de trabajo es, por tanto, un factor fundamental de la lucha de clases. Podemos analizarla desde tres perspectivas: a) como factor de creación de empleo ante los aumentos de productividad; b) como estrategia de reparto de la riqueza desde donde se produce, el centro de trabajo; y c) como parte del reparto del tiempo de trabajo tanto en el ámbito de la producción, como en el de la reproducción y los cuidados.

Basta con mirar la situación actual del empleo para darnos cuenta de que, más allá de los ciclos de la crisis sistémica, el desempleo y la temporalidad son estructurales. La riqueza generada por el trabajo y los incrementos de productividad tienden a concentrarse y acumularse cada vez en menos manos. Al mismo tiempo, se mantiene la misma jornada laboral y trabajadoras y trabajadores se empobrecen, debido a la destrucción y precarización del empleo.

No hay alternativa sin el reparto equitativo de la riqueza, y dentro de ella, la RTT para crear más y mejor empleo. Trabajar menos para trabajar todas las personas.

La sociedad en su conjunto gana con la RTT: todas las personas pueden acceder a un empleo de calidad que le garantice unas condiciones de vida dignas, la distribución de la riqueza estabiliza el proceso productivo, se reducen drásticamente los riesgos derivados de la concentración y acumulación de capital, y por último, posibilita a las personas disponer de más tiempo para la conciliación efectiva de la vida laboral y vital.

La RTT, como estrategia de reparto del tiempo de trabajo, contribuye asimismo a la superación de la discriminación de género que relega a las mujeres al ámbito del trabajo reproductivo. Se crea empleo y aumentan las posibilidades de compartir y/o socializar el trabajo doméstico. La RTT es una alternativa para superar la opresión y explotación de género y hacer un efectivo reparto de las tareas reproductivas.

La RTT es también una estrategia

para mejorar la participación de las trabajadoras y trabajadores en el ámbito político, e institucional, que hoy están en manos de personas que disponen de tiempo para ello, porque no dependen de su empleo. Las estrategias de reducción del tiempo de trabajo en la escala semanal y en el conjunto de toda la vida laboral (jubilación a los 60 años, permisos retribuidos, años sabáticos, etc.) deben facilitar la implicación de las personas en tareas colectivas, conciliación de la vida laboral y vital, euskaldunización y formación o tiempo libre.

El Reparto del Trabajo ha sido una reivindicación histórica en Euskal Herria. Su máximo exponente fue la Huelga General convocada por la mayoría sindical el 21 de mayo de 1999. ¿Cual era el contexto? ¿Cuales las reivindicaciones, los objetivos, las victorias y derrotas?

La propuesta de RTT realizada por la mayoría sindical vasca en 1999 y la huelga general que le dio cobertura, se inscribe en una situación de recesión económica reflejada, entre otros datos, en la existencia en Hego Euskal Herria de 170.000 personas desempleadas.

En coincidencia con las estrategias de RTT que se estaban planteando en Europa, especialmente en el estado francés, y siguiendo la estela de los acuerdos interprofesionales, ELA y LAB planteamos en el Consejo de Relaciones Laborales de la CAV un acuerdo interprofesional para establecer una jornada laboral máxima de 35 horas de trabajo semanales. La patronal rechazó de plano la propuesta y se negó a abrir cualquier posibilidad de abordar una negociación al respecto. Ese fue el detonante para convocar la Huelga General.

La iniciativa de RTT se completó con la reivindicación de una Renta Básica que, en ausencia de empleo digno, permitiera a las personas acceder a unas condiciones de vida dignas. En torno a estas reivindicaciones, se produjo una

“La RTT para crear más y mejor empleo. Trabajar menos para trabajar todas las personas”

“La disminución del tiempo de trabajo debe posibilitar la dedicación a tareas de carácter comunitario”

“Exigíamos una RB sustitutoria de la falta de empleo, nuestra principal reivindicación era la creación de empleo de calidad”

“Los incrementos de productividad son más que suficientes para reducir a 35, e incluso a 32 horas, la jornada laboral”

convergencia entre el movimiento obrero y las organizaciones sociales vascas, germen de posteriores convocatorias de huelgas generales ante la crisis y la elaboración de la Carta de los Derechos Sociales de Euskal Herria.

La posición de la mayoría social y sindical, era clara a este respecto: exigíamos una RB sustitutoria de la falta de empleo, nuestra principal exigencia era la creación de empleo de calidad, el desarrollo de los servicios públicos universales y de calidad, y una prestación social que garantizara a las personas acceder a unas condiciones de vida dignas. Esta propuesta de RB es la misma que se ha recogido en la Carta y sigue siendo la posición de la mayoría social y sindical en la actualidad.

Las movilizaciones sociales de esos años consiguieron la semana de 35 horas en la administración pública vasca y el establecimiento de una renta básica, que aunque no era la que el movimiento social y sindical habíamos reivindicado, se instauró con una cuantía del 80% del SMI.

En un modelo en el que, según dicen, cada vez habrá menos trabajo debido a las nuevas tecnologías, por qué tanta resistencia a repartir el empleo? ¿Qué desarrollo ha tenido el reparto del trabajo los últimos años?

Está claro que las nuevas tecnologías incrementan exponencialmente la productividad por lo que el tiempo de trabajo necesario para producir bienes y servicios es cada vez menor. Pero la lectura que hace el capital y la que hacemos nosotras y nosotros es radicalmente distinta.

El capital utiliza la innovación para apropiarse de la ganancia que generan los incrementos de productividad. Es decir, acentúan la concentración y acumulación de capital en cada vez menos manos, origen de la especulación financiera y la crisis sistémica que padecemos.

Nosotras demandamos que los be-

neficios de ese incremento de productividad se repartan equitativamente para fomentar un desarrollo sostenible y un reparto de la riqueza que permita a todas las personas acceder a unas condiciones de vida dignas. Reparto de la riqueza tanto en forma de rentas salariales, como de cotizaciones sociales e impuestos.

Es evidente que el problema no reside solo en la distribución de la riqueza con exclusividad. Esta es posible porque en el modelo de producción capitalista la propiedad de los medios de producción otorga el poder para apropiarse de los beneficios que genera la fuerza de trabajo. Este principio de propiedad constitucionalmente recogido como fundamental determina la orientación de las políticas públicas, facilita la acumulación de capital y "socializa" cada vez mayor porción de capital fijo imprescindible para el funcionamiento del sistema. Por ello entendemos también la RTT como una disputa del poder de decisión en los centros de trabajo, en la orientación de las políticas públicas y como cuestionamiento de la propiedad privada de los medios de producción.

La reivindicación de la RTT ha estado presente en la dinámica sindical tanto en las propuestas de carácter confederal como en las dinámicas de negociación colectiva, sectorial y de empresa. Si bien es cierto que en algunos espacios empresariales se han dado avances, la realidad es que la jornada laboral y el tiempo de

trabajo están aumentando, y al mismo tiempo, aumenta la temporalidad en el empleo. La RTT se está produciendo controlada por la patronal, dejando en la calle a miles de trabajadores, creando jornadas parciales, empleos temporales, libre disposición.

La RTT sigue siendo una reivindicación sindical fundamental. Los incrementos de productividad que deben ser repartidos equitativamente exigen una RTT de carácter universal, en todo el tejido productivo a la vez y drástica: semana máxima de 35 horas y sin merma del salario.

¿Cuales son los retos a los que nos enfrentamos en este carril? ¿En qué consiste el Acuerdo Interprofesional sobre el Reparto del Trabajo?

Si es cierto que los incrementos de productividad reducen el trabajo necesario, y si, como demuestra la práctica, la mejora de las condiciones de trabajo y, entre ellas, la reducción de la jornada laboral mejoran la productividad, ¿por qué ni instituciones públicas ni empresarios apuestan por la RTT?

Porque para el neoliberalismo político y económico su prioridad reside en la acumulación y concentración de capital, aunque para ello tengan que esquilmar recursos naturales, generalizar la exclusión, la pobreza, o destruir la vida. Por

que para instituciones neoliberales y patronal es más fácil domesticar la fuerza de trabajo con la amenaza del desempleo y la precariedad. Porque a la ideología patronal dominante sólo le preocupa obtener el mayor beneficio posible en el menor espacio de tiempo a costa de lo que sea.

Los beneficios producidos por el trabajo son más que suficientes para que todas las personas puedan acceder a unas condiciones de vida dignas. Los incrementos de productividad son más que suficientes para reducir a 35, e incluso a 32 horas, la jornada laboral.

La RTT, se puede hacer mediante un acuerdo interprofesional tanto en Navarra como en la CAV, refrendado por un acuerdo tripartito comprometiendo a la administración de ambos territorios y reforzado por una ley de los parlamentos. No es un problema de falta de competencias, sino de falta de voluntad política y el interés de rentistas y especuladores. En EH, hoy, sindicatos y organizaciones sociales no tenemos interlocutores empresariales políticos suficientes que apuesten por redistribuir la riqueza para dar estabilidad a la economía. La inestabilidad está siendo el caldo de cultivo en el que los ricos se hacen más ricos a costa de la sociedad en general.

Es una pelea que debemos dar, por tanto, dentro de una ofensiva radical contra la precariedad, la exclusión social y la discriminación por razones de género, procedencia o edad. Pero es una pelea que hay que dar desde los centros de trabajo; una apuesta radical por la creación de empleo de calidad que reclama una movilización general persistente y contundente.

La estrategia de la RTT en los términos que planteamos sólo va a ser posible, por tanto, desde la revitalización de la movilización social y sindical, como parte integrante de la ofensiva social y sindical de la Carta de los Derechos Sociales de EH. ■



Denbora eta lanEn banaketa

7:10 rrrriiiiiiiiiinnnnnnnnnnnn-
gggg.....eguna hasteko ordua.

Erlojuak esaten digu noiz altxatu, zein ordutan lanean hasi, noiz autobusa hartu edo noiz erosketak egin. Denborak gure egunerokoa egituratu eta ordenatzen du. Egutegi eta ordutegiek posible egiten dute jendarte antolaketa eta ekintza desberdinen koordinazioa. Badakigu eguneko zein ordu eta minutu zehazetan bizi garen, zein egunetan, zein hilabete eta zein urtetan. Haurrei eskolan jaioturtearen arabera dagokie gela bat edo beste. Gure adinak eta

MARINA SAGASTIZABAL
eta **MATXALEN LEGARRETA**
soziologoak eta EHU-ko
irakasleak dira. Bizitza
erdigunean jartzen duen
ikuspegi feminista batetik
zaintza eta etxeko lanak,
genero desberdintasunak,
presentzia-ausentziak eta
denboraren erabilerak
aztertzen dituzte.

ordaindutako lanari eskainitako urteek adierazten digute merkatutik noiz erretiratu. Ilea urdintzen zaigu, zimaurrek aurpegia zeharkatzen digute... Denbora gudan dago, denbora gara.

Lanen eta aberastasunen banaketaren auziari heltzeko ere ezinbestekoa zaigu denbora aintzat hartzea, batez ere hiru norabidetatik. Batetik, bizitzaren sotsengarritasunerako beharrezkoak diren lan guztiak argitara ateratzeko. Bestetik, emantzat jotzen dugun arren, denbora jendarte eraikuntza dela gogoratzeko. Eta, azkenik, jendarte eraldaketarako.



**Marina
Sagastizabal
Emilio-Yuso**

**Matxalen
Legarreta Iza**

Soziologoak eta EHUko irakasleak

LANEN JENDARTE BANAKETA

Ekonomialari feministek argi utzi digute merkatukoa ez dela jendartearen mantenturako eta bizitzaren sostengarritasunerako beharrezkoa den lan bakarra. Etxeko eta zaintza lanak ere ezinbestekoak dira. Hauek, hala ere, ez dute ordaindutako lanaren besteko aitortza sozialik. Ezkutuko lanak dira, batez ere emakumeek etxeko esparruan egiten dituztenak. Izeberg-aren behealdean kokatzen dira, ur azpian daude eta, hala ere, nahitaezkoak dira begi-bistara daudenak ur gainean mantentzeko.

Ezkutuko lanak agerian jartzea da dagokien aitortza soziala lortzeko lehen pausua eta horretan Denbora Aurrekontuen Inkestek (Eustat, 1993-2013) berebiziko garrantzia dute. Hauen bidez egunean egiten ditugun ekintzak identifikatzen dira eta bakoitzari eskaintzen diogun denbora neurtzen da, ordutan eta minututan.

Datuek agerian utzi dute egunaren egituraketa apenas aldatu dela azken bi hamarkadetan. Erdia beharizan fisiologikoak asetzeko erabiltzen dugu, laurden bat lanerako (bai merkatuko lana zein etxeko eta zaintza lana) beste laurdena ia aisialdia eta bizitza sozialerako eta ordu bete inguru joan-etorrietarako.

Lanari eskainitako denborak nabarmen egin du behera azken 20 urteetan. Etxeko eta zaintza lanak eta ordaindutako lanak batera 5 ordu eta 31 minutu hartzen ditu 1993an eta 22 minutu gutxiago 2013an. Beharakada honen arrazoi nagusia azken urteetan ordaindutako laneko denboraren murrizketa da, krisi produktibo-finantzaria dela eta.

Nola daiteke, hala ere, laneko denborak egunaren laurdena baino ez hartzea? Eta etxeko eta zaintza lanena merkatukoaren parekoa izatea?



“Ezkutuko lanak agerian jartzea da dagokien aitortza soziala lortzeko lehen pausua eta horretan Denbora Aurrekontuen Inkestek berebiziko garrantzia dute”

“Gehiago da emakumeek etxean egiteari utzi diotena gizonak egiteari gehitu diotena baino”

Inkestak batz besteko egun batean egindakoa neurtzen du, asteko egun guztiak eta 16 urte edo gehiagoko biztanleria osoa aintzat hartuz. Ordaindutako lana, ordea, batez ere astelehenerik ostiralera burutzen da eta biztanleriaren parte batek egiten du (erdia baino gutxiago), nahiz eta egiten duenean, batz bestean ia 7 ordu eskaini. Aldiz, etxeko eta zaintza lanetan parte hartzea ia erabatekoa da (%80 ingurukoa), aste-ko egun guztietan. Beraz, denboraren erabilerrari erreparatuta, ordaindutako lanak gure jendartean duen nagusitasuna zalantzan jartzen dugu, etxeko eta zaintza lanena agerian jarritz.

Lanen banaketa, gainera, ez da parekidea. Emakumeek etxeko eta zaintza lanari denbora gehiago eskaintzen diote gizonak baino eta gizonak ordaindutakoari emakumeek baino gehiago. Azken hogeitau urteetan emakumeen parte hartzeak merkatuko lanean gora egin du eta etxeko eta zaintza lanetan behera, gizonenak, aldiz, etxeko eta zaintza lanetan gora eta merkatuko lanean behera. Hala ere, eboluzio honek bi ezaugarri ditu. Batetik, gehiago da emakumeek etxean egiteari utzi diotena gizonak egiteari gehitu diotena baino. Bestetik, orokorrean emakumeek gizonak baino ia ordu bete gehiago lan egiten dute, bai 1993an eta baita 20 urte geroago ere. Hau da, emakumeek astean ia zazpi ordu gehiago lan egiten dute gizonak baino: lanaldi oso bat. Horregatik denbora gutxiago dute aisialdirako, bizitza sozialerako eta joan etorrietarako. Gainera, lan merkatuan parte hartzen duten emakumeek “lanaldi bikoitza” hartzen dute beraien gain, “presentzia bikoitza” eta sarritan “hirukoitza” biziz.

KAPITALAREN DENBORA ETA BIZITZA DENBORA

Emakumeek etxeko eta zaintza lanen denbora eta merkatuko lanarena egunerokoan koordinatu behar dituzte eta,

horretarako, saltoka ibili behar dute etengabean eremu batetik bestera, malabarismoak egiten. Halaber, bestelako esparruetan parte hartu nahi izanez gero (soziopolitikoan, esaterako) hirugarren lan zama bat txertatu behar dute dagoeneko konplikatua den ekuazioan. Horregatik, emakumeen parte hartzea lan merkatuan zein arlo soziopolitikoan oztopoz beterik dago, pobreziaren feminizazioak denbora pobrezia ere barne biltzen duelako.

Eguneroko esparru ezberdinen koordinazioa zaila da emakumeentzat, bai eta etxeko eta zaintza lanak eta merkaturko lana bere gain hartzen dituen edozeinentzat ere. Esparru bakoitzari dagokion denborak logika ezberdinaz funtzionatzen du. Kapitalaren denbora eta bizitzaren denbora ez datoz bat.

Kapitalaren denborak ez ditu gorputzaren eritmoak aintzat hartzen, ahalik eta etekin gehien metatzea du helburu: lineala da. Denbora abstraktua da, neurgarria, zatigarria, egunaren antolaketa kronometrikoa baimentzen duena, hau da, erlojuaren diziplina bermatzen duena. Ordutan eta minutuan neurtutakoa, diru truke saldu eta erosi daitekeena. Kapitalismo heteropatriarkalaren denbora.

Kapitalaren denbora hegemonikoa da egun. Ez dugu ahaztu behar, ordea, ez dela unibertetsala, ezta a-historikoa ere. Momentu konkretu batean sortu eta hedatzen da prozesu sozial eta helburu zehatz batzuei lotuta: ahalik eta etekin gehien metatzea, alegia.

Bizitzaren denborak aldiz, gorputzaren eritmoak jartzen ditu erdigunean. Erlazionala da, dohaintzan oinarritutakoa, zirkularra: eman, jaso eta itzuli. Zaintza lanei loturiko denbora da, baita naturari ere. Euskal Herrian ez dugu betidanik erlojuaren arabera antolatu gure egunerokoa eta hilabeteen izenek



“Emakumeen parte hartzea lan merkatuan zein arlo soziopolitikoan oztopoz beterik dago, pobreziaren feminizazioak denbora-pobrezia ere barne biltzen duelako”

“Kapitalaren denbora hegemonikoa da egun. Ez dugu ahaztu behar, ordea, ez dela unibertetsala, ezta a-historikoa ere”

“Feminismoek denboraren izaera plurala aldarrikatzen dute: denbora anitza, ez-hierarkikoa eta gorpuztua”

horren berri ematen digute: esaterako, uztaila (uztaren hila), ekaina edo garagarria (garagarra biltzekoa), urtarilla edo izotzila (hilbaltza edo beltzila).

Dimentsio bakarreko denboraren kritikatik abiatuz eta bere izaera artifiziala agerian jarriz, feminismoek denboraren izaera plurala aldarrikatzen dute: denbora anitza, ez-hierarkikoa eta gorpuztua.

DENBORA POLITIKAK

Denboraren izaera pluraletik abiatuta, bizitza erdigunean jartzen duen jendarte eredia eraikitzea proposatzen da feminismoetatik. Horretarako denbora tresna politiko dela aldarrikatzen dugu. Proposamen honen aitzindariak 80. hamarkadan kokatzen dira. Italiako Alderdi Komunistako emakumeek, mugimendu feminista eta unibertsitatekoekin batera, lege proiektua plazaratzen dute: *emakumeok denborak eraldatzen ditugu* da leloa. Hiru ardatz nagusi garatzen ditu proposamenak: bizitza zikloa, lanen denbora eta hiriarren denbora.

Lehen ardatzak bizitza zikloa du hizpide. Bizitza zikloa merkatuaren logikaren arabera antolatutako hiru etapa jarraiki osatzen dute. Haurtzarora eta gaztarora: lan merkatuan aritzeko gaitasunak barnerratzeko garaia; helduarora: lan merkatuan iharduteko tartea; eta zahartzarora: lan merkatutik erretiratzeak. Non geratzen da pertsonak zaintzeko denbora? Bizitzaren antolaketa eredu honek ez ditu aintzat hartzen gorputzaren eritmoak, pertsonon izaera zaugarria edota emakumeen ugalketa adina, ezta etxeko eta zaintza lanen denbora edo parte-hartzearena ere. Horrenbestez, ez ditu islatzen emakumeen esperientzia eta bizipenak merkatu laborean, jarraikortasunak baino sartu-irtenek eta etenek ezauzgarritutakoak direnak. Horren aurrean,



etxeko eta zaintza lanak ardatz izango duen bizitza zikloaren antolaketa aldarrikatzen dute italiarrek, gorputzaren erritmoak errespetatzen dituen eta emakumeen esperientzia aintzat hartzen duena.

Bigarren ardatzak egunerokoaren antolaketa hegemonikoaz dihardu. Egunerokoa hiru unetan dago banatua: zortzi ordu merkatuko lanerako, zortzi aisialdirako eta zortzi lotarako. Non geratzen da etxeko eta zaintza lanen denbora? Honek ere, ez ditu bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren lan guztiak kontuan hartzen, ezta komunitatea garatzeko beharrezkoak direnak ere. Italiako emakumeen proposamena merkatuko lanorduak murriztu eta birbanatzea da baita etxeko eta zaintza lanak banatzea ere. Horrez gain, zaintzarako lan baimenak (bizitza zikloko momentu ezberdinetan eta

ez seme-alabak txikiak direnen soilik) zein bestelakoak garatzea proposatzen dute (formaziorako edo parte-hartze soziopolitikorako, esaterako).

Hirugarren ardatza hiriko ordutegiaren erregulazioaz mintzo da. Egun hiri zein herrietako ordutegiak ez datoz bat jendartearen eguneroko beharrek: eskolako eta saltokietako ordutegiek ez datoz bat merkatuko lanekoekin, ezta garraio publikoarenak eta zerbitzu publikoenak ere. Nork zehazten ditu? Ordutegiak erakunde ezberdinek erabakitzen dituzte eta ez dago koordinaziorik beraien artean. Horregatik, tokiko udalei hiriko edo udalerriko ordutegiak erregulatzeko eskumena eman eta eguneroko bizitzak errazteko politikak martxan jartzeko aukera ematea proposatzen da, etxeko eta zaintza lanak ipar gisa hartuz eta emakumeei erabakietan parte-hartzeko aukera luzatuz.

Lege proposamenak argi adierazten du kapitalaren denbora eta bizitzaren denbora kontrajarriak direla eta bien arteko kontziliazioa ezinezkoa dela: bizitza erdigunean jartzen duen jendarte eredu eraikitzea da bidea. Horrela, lanen birbanaketa lortu ahal izateko eta parekideagoa den jendarte antolaketarantz aurrerapausoak emateko ezinbestekoa da bizitzaren sostengarritasuna erdigunean jarri eta lan guztien aitortza soziala lortzea. Horretarako, denbora ulertzeko eta egituratzeko era aldatu behar da hala-beharrez, bizitza denbora aintzat hartu eta denboraren gainean erabakitze eskumena aldarrikatuz.

Lege proposamena ez da bere osotasunean garatu baina balio izan du denboraren izaera politikoaz arreta pizteko. Denbora tresna politikoa ere bada eta. ■



Edurne Larrañaga Celada

**Ekintza Sozialeko
Antolaketa Idazkaria**

LAB CC-BY-SA

Proposamenak, bizitza duinaren bidean

Eskubide sozialen eremuan, eztabaida bizi-bizia ikusten ari gara. Langabeziaren hedapena, babes sozialean gertatutako murrizketak, etorkizunaren prekarizazioa edota esplotazioaren gogortzeak berpiztu dute irtenbideak aurkitzeko beharra. Bistan da egungo harreman soziopolitikoak errotik aldatzeko eta soldatapeko lanaren erregimena behin betiko gainditzeko, sakoneko estrategia behar dela, botere-harremanak eta politika ekonomiko eta soziala irauliko badira. Norabide horretan, besteak beste, jendearen bizi-baldintzak hobetzen eta egungo ereduak kuestionatzen lagunduko dituzten neurriak behar ditugu. Testuinguru honetan ez da harrizkoa eztabaida

Edurne Larrañaga Celada
(1982, Oiartzun) Zientzia
Politikoetan lizentziatua da.
Eremu desberdinetan aritu izan
da, tartean ikasle eta hezkuntza
mugimenduan. Aztiker ikergune
soziologikoan aritu da, Parte
Hartze dinamizatzaile gisa.
Egun, LAB-eko Ekintza Sozialeko
Antolaketa Idazkaria da.

politikoan hamaika bat proposamen lehertzea, zaharrak eta berriak: oinarri-zko errenta unibertsala, berdinen arteko oinarri-zko errenta unibertsala, bermatutako enplegua, lan erreproduktiboaren aitortza, lanaren banaketa...

Lan eta bizi baldintzen prekarizazioa, egiturazko langabezia eta etengabe areagotzen dabilen bazterketa soziala neoliberalismoaren ondorio zuzena dira. Politika neoliberalak, mota guztietako arau-erreformen bidez, enpresaburuek enpresetan duten erabakimena eta boterea handitu dute. Kapitalismoak 2008. urtean eztanda egin zuen krisi ekonomiko-finantziaria baliatu du ziklo berri bat irekitzeko. Kapitalak bere burua

birkokatu eta aberastasuna metatzeko estrategia berri du azken urteetan. Kapitalaren eta lanaren arteko talka murrerara eramane eta kapitala pilatzen jarraitzeko bitarteko bilakatu da bizitzaren sostenigarritasuna. Era berean, lan eta bizi baldintzen prekarizazioa kapitalaren akumulaziorako bitarteko nagusi bilakatu da.

Geratzeko heldu den estrategia da. Horregatik, egoera hau errotik irauli behar dugu, langile klasearen zati garrantzitsu batentzako ez baitu bizitza duinerako betarik uzten. Egungo sistema heteropatriarkal biozidari, esplotazio eredu kapitalistari alternatibak bilatu, topatu, eztabaidatu, konpartitu, erabaki eta eraiki behar ditugu. Natura zein pertsonak erdigunean izango dituen eredu sozial berria eraikitzeaz hitz egin ari gara. Egungo errealitateak abiatuta, alternatibak sustatuz, etorkizun berria egunez egun eraikiz.

Hau da Talaia honen izateko arrazoia. Premia testuinguru honetan, langabeziari, lan baldintzen prekarizazioari eta garapen eredu biozidari aurre egiteko aldaketa ekonomiko eta sozialerako proposamen desberdinak aurkeztu eta konpartitzea.

Alternatiba hauetariko batzuk euren artean osagarriak izan litezke, egungoaren bestelako eredu sozio-ekonomiko bat eraikitzeke premia gorria oinarri gisa hartuta, ikuspegi desberdinetatik egin behar dela uste dutelako: lanerako denboraren murrizketa, aberastasunaren banaketa justua, sozialki beharrezkoak diren lanak...

Beste batzuk sindikatu honen aldarrikapen historikoak dira, proposamen eta protesta une garrantzitsuak bizi izan dituztenak:

1996-2000 urteen bitartean garai hartan soldata soziala zeritzonaren aldarrikapenak garrantzi handia izan



Egungoaren bestelako eredu sozio-ekonomiko bat eraikitzeke premia gorria oinarri gisa hartuta, ikuspegi desberdinetatik egin behar da.

Herri Ekimen Legegilea bazterketa sozialaren kontrako plataformen, eragile sozialen eta sindikatuen elkarlanaren emaitza izan zen.

zuen euskal gehiengo sindikalaren eta euskal gizarte-mugimenduaren agendan. Batzuk eta besteak elkar hartuta, "Gizarte Eskubideen Gutun baterako Lege Proposamena" izeneko legegintzako herri-ekimena (LHE) jarri genuen martxan. 82.000 sinadura jaso genituen (1997) eta mobilizazio handiak egin ziren. Lege prozedurari jarraiki, legebiltzarrean langabeziaren eta pobreziaren kontrako Eskubide Sozialen Karta izapidetzea berretsi zen aldeko 37 bozka eta kontrako 22 bozkekin (talde parlamentario guztiek bozkatu zuten alde EAJ-k izan ezin). LHE hori oso esperientzia garrantzitsua izan zen sindikatuek eta gizarte-mugimenduek gizarte-bazterkeriaren eta pobreziaren aurkako borrokan egindako lanari dagokionez, eta gogoan izatea komeni da.

Aipatutakoaz gain, enplegua banatzea eskatzen zuen ekimen hark (lanaldia 35 ordu murriztea, 32ra Administrazioan; kontratu prekarioak egonkorrekin ordezkatzeko; erretiroa 60 urterekin eta aparteko orduak ezabatzea) eta soldata sozialerako eredu bat aldarrikatzen zuen, honako baldintzatan oinarrituta: banan-banakoa, 18 urtetik gorakoentzat, pentsiodunak barne, urtebeteko erroldatzea, gutxieneko soldataren %100, mugagabea beharrak (enplegurik ezak) dirauen bitartean, kontraprestazioa eskatzea onartzen zen.

Ekimen horri jarraiki, greba orokor arrakastatsua egin zen 1999ko maiatzean, 35 orduko lanaldia eta soldata soziala eskatzeko.

Proposamen eta mobilizazio haiei esker, pobreziaren aurkako borroka agenda politikoan sartzea lortu genuen ikuspegi integral batetik, soldata soziala estigmatizazio asistentzialistaren esparrutik atera eta, enplegurik ezean, "eskubide osoko herritar gisa bizi" ahal izateko oinarritzeko errenta gisa aldarrikatzeko.

Legebiltzarraren 10/2000 Legearen bidez (egun indarrean dagoenaren aurkaria) ekimen hura urardotuta gelditu bazen ere, gaur egun euskal DSBEz esaten diren "gauza onak" eta beste erkidego batzuen aldean txalotzen diren berezitasunak euskal sindikatuok eta gizarte-mugimenduak aktibatzen gai izan zen gizarte-mobilizazio haren fruituak izan dira.

Ordutik, euri asko egin du. Baina aldarrikapen horiek gaurkotatzen aurreratuak jarraitzen dute. Horiek, eta aurkezten ditugun beste batzuk, gustatu ala ez, denak dira ezagutu, aztertu eta eztabaidatu beharrekoak.

Kontratu-harremana edozein delarik ere, langileria indarra eta aldarrikapenak batzeko borrokan ari gara, errenta eta boterea lan-zentroetan, eremu sozialean eta instituzionalean lehiatzeko. Lan erreproduktiboa sozialki baloratua eta enplegu gisa aitortua izan behar da. Lan indarraren erreproduktzioak berehalako lanaren banaketa

1999ko maiatzaren 21ean Hego Euskal Herrian greba orokordealdia egin zuen euskal gehiengo sindikalak. Luzez gogoratuko dugun mobilizazioa.

Elkartasuna eta aberastasunaren banaketa justua neoliberalismoa gainditzeko gakoak dira.


behar du, dena emakumeengan eror ez dadin.

Jakin badakigu, gure lanarekin sortzen den aberastasuna gero eta esku gutxiagotan pilatzea, genero-desberdintasun zein desoreka sozial eta ekonomiko sakonen oinarria dela. Zentzu honetan, sistemak kapitalaren pilaketarako eta kontzentrazioarako duen egiturazko joeraren ondorio dira desberdintasunak. Beraz, elkartasuna eta aberastasunaren banaketa justua neoliberalismoa gainditzeko gakoak dira.

Aurkeztutako proposamen desberdinek gure posizio sindikala indartzeko balio izatea espero dugu. Baita euskal langileria bestelako ekoizpen eredu bat posible dela ikustarazteko erabilgarri izatea ere.

Politika publikoak birnorabidetu behar ditugu. Instituzioak interpelatu, Euskal Herrian bizi den pertsona orok bizi-baldintza duinetarako eskubidea bermatua izateko busti daitezten.





“Egungo ereduaren aurreko edozein alternatibari bezala, ezin zaio eskatu aurrean dugun krisi multidimentsional eta konplexuari aurre egiteko konponbide bakarra eta integrala izan dadin.

Beste aukera batzuekin batera solasean aritu behar da, trantsizio multidimentsional eta konplexuen prozesu batean modu koherentean txertatzea lortzeko.”

“Hacia la centralidad de la vida”,
en Renta Básica de las iguales y feminismos
Yayo Herrero, 2014